

BERRIKUNTZAK EGITEN GURE LANTALDEEN KUDEAKETAN.

**AGILISMOA+
ART OF HOSTING
+
IKUSEZINEAN
BIDAIATZEN**

URRATSAK EMANEZ ERAKUNDEEN
ERALDAKETA FEMINISTARANTZ

**APIRILAREN 10
9.30TIK 14RA**

ZARATEGI

PASEALEKUA, 100 .

BALIONINTZA GELA)

DONOSTI

**MAIATZAREN 22
9.30TIK 14RA**

TOKIA

EGIAZTATZEKO

GASTEIZ

bizkako hirugarren
sektorearen behotakia
observatorio del
tercer sector de bizkai



MUGARIK GABE
www.mugarikgabe.org

AURKEZPENA

Jardunaldi honetan erakundeen kudeaketa, berrikuntza eta eraldaketa izango ditugu hizpide. Eta bi proposamen ezberdinen bidez ekingo dugu.

Alde batetik, jardunaldiaren ardatz nagusi gisa, erakundeen antolakuntza-errealitateei heltzeko bi ikuspegi metodologiko eta eredu (*Agile* eta *Art of Hosting*) ezagutuko ditugu, gure erakundeen kudeaketari berrikuntzak ekarri ahal dizkiotelakoan. Bestetik, Mugarik Gabe-ren eskutik, beraien “[Ikusezinean Bidaiatzen](#)” esperientzia aurkeztuko dugu, eraldaketa feministarako aldaketak sustatu nahi dituen antolakuntzan, baita prozesu horretatik abiatuta osatu duten gida ere.

EDUKI XEHEAK

Jardunaldiaren proposamen nagusiari buruzko (*Agile* + *Lidergo parte-hartzailea*) informazio osoa aurki dezakezue Kudeaketa-testu labur honetan: [Berrikuntzak egiten gure lantaldeen kudeaketan: Agile + Lidergo parte-hartzailea \(Art of Hosting\)](#). Nolanahi ere, hona hemen laburpena:

ZER DA AGILE?

Agile metodo eta praktika multzo bat da, non konponbideak beren kabuz antolatutako funtzio anitzeko lantaldeen eta horien bezero edo erabiltzaileen arteko elkarlanaren emaitza diren. Egokitzapen-plangintzaren, garapen ebolutiboaren, entrega goiztiarraren eta hobekuntza etengabearen alde egiten du, eta erantzuna azkarra eta aldaketen aurrean malgua izatea sustatzen du.

Agile erako metodologiak (*Scrum/Kanban*) software-garapenaren industrian abiatutako eta azken urteotan sektore eta tamaina ezberdinetako erakundeetara zabalduko paradigma-aldaketa batean oinarritzen dira.

- Proiektuen kudeaketa bezeroekiko elkarlanean ardatzen da, haien beharrak asetzea eta proiektuak inbertsioa berreskuratzea lehenetsiz.
- Ingeniaritzako teknikak bilatzen dira, garatutako proiektuen kalitatea eta iraunkortasuna bermatzeko.
- Sorkuntza-prozesu osoan zehar aplikatzen dira, ez soilik amaieran, eta lantaldeari dagokio hori ziurtatzearen ardura.
- Ereduak balioak gidatzen ditu, eta “beta” egoeran daudenak ere (amaitu gabeko produktuak; haien bidez, erabiltzaileen edo/eta bezeroen “feedback” goiztiarra bilatzen da) lan profesional baten emaitza dira.
- Prozesuen ingeniartzaren eta beti bilakaera etengabe dagoen inguru batera egokitzeko beharraren arteko elkargunea ahalbidetzen du.

ZER DA LIDERGO PARTE-HARTZAILEA / ART OF HOSTING?

Lidergo Parte-Hartzailearen Artea (*Art of Hosting* o *Art of Participatory Leadership*, ingelesez) gero eta konplexuagoa eta aurreikusten zailagoa den mundu baten aurreko erantzuna da. Haren arabera, irtenbideak eta berrikuntzak ez dagozkio lider bakar bati edo ikuspegi bakar bati, baizik eta gure inguruko sistema osoaz ohartzeko eta hura ulertzeko dugun gaitasunari.

Oso praktika eraginkorra da jakinduria kolektiboa eta edozein tamainatako taldeek beren kabuz antolatzeko gaitasuna askatzeko. Lidergo Parte-hartzaileak hainbat metodo eta praktika uztartzen ditu, bidean topatzen ditugun erronei aurre egiten lagunduko diguten elkarrizketak errazteko eta ahalbidetzeko, lantaldeen elkarlanerako adimena piztuz.

Garrantziko elkarrizketen sustatzaile izateko artera jotzen dugu aurre egin beharreko erroka konplexuei erantzun eraginkor eta jakintsu bat eman behar diegunean. Norberak bakarka ikus ezin dezakeena erakusten digu, eta bakardadean sortu ezin dena elkarrekin sortzea ahalbidetzen digu.

Gizakiok, lanean zein bizitzan, gure arreta eta baliabideak axola zaizkigun kontuetara bideratzen ditugulako ustean oinarritzen da *Art of Hosting*. Lidergo Parte-Hartzailearen Arteak (horrela ere izenda daiteke) hainbat elkarrizketa-prozesu nahasten ditu, eta aurre egin behar diegun erronketan murgiltzeko eta horien agintea hartzeko gonbit egiten digu, baita nahi dugun emaitza lortzeko plangintza egokienak diseinatzeko ere.



ZER PROPOSATZEN DIGUTE PROIEKTUAK ETA "IKUSEZINEAN BIDAIAITZEN" GIDAK?

Funtsean, Ikusezinean zeharreko Bidaia bat egitera gonbidatzen gaituzte, antolakuntzari eragiten dioten berdintasunaren aldeko aldaketa-prozesuen bitartez. Prozesu horren guztiaren **HELMUGA gure inguruaren, gure**

harremanen eta gure bizitzaren eraldaketa feminista da. Bidaia baten bidez iritsiko gara bertara, antolakuntzan beharrezkoak diren aldaketak gauzatu, bideo honetan azaltzen den moduan:

Hiru urtetik gorako eraikuntza kolektiboko prozesu bat da. Praktikatik ere ezagutza eraikitzearen alde egin duen proiektu bat da, jardunaldian aurkeztuko den bidaia-gidan gauzatu dena. Eraikuntza kolektiboko prozesu hori alde zuzeneko esperientziatik abiatzen da, eta ez soilik Mugarik Gabe erakundearenetik, baizik eta berdintasunaren aldeko antolakuntza mailako aldaketa-prozesuak sustatzen denbora luzea daramaten beste erakunde batzuenetik ere.

Bidaia horretan gure antolakuntza-ereduei buruzko hausnarketa egingo dugu, eta bestelako praktikak martxan jarriko ditugu. Gure esperientziatik abiatuta, hurrengo ibilbideak lehenetsi ditugu: AIREAN zehar (antolakuntza mailako boterearen, lidergoaren eta sentipenen kudeaketarantz), LURREAN zehar (lan-ereduak, rolak, talde-lana eta ardura partekatuko plangintza ardatz hartuta) eta ITSAS SAKONEAN zehar (zaintzak eta gatazkak barne hartzen saiatuz). [Lotura](#) honen bidez, proposamen honetan murgiltzera gonbidatzen zaituztegu. Era berean, proiektuari buruzko informazio gehiago aurki dezakezue gure Kudeaketa-testu labur honetan: [Bizitza gure erakundearen erdigunean. Elkarrizketa María Viaderorekin \(Ikusezinean Bidaiatzen – Mugarik Gabe\) eta Rosa Fernándezekin \(Sotevidabilidad - Laguntzailea\)](#)

EGITARRAUA

9.30 Jardunaldiaren aurkezpena.

9.40 **María Viadero (Mugarik Gabe)**. “Ikusezinean Bidaiatzen” gida **aurkeztuko dugu**. Eta, laburki, bertan proposatzen zaizkigun praktika ezberdinak ezagutzen ahaleginduko gara.

11.00 Eduardo Escobés (EDE Fundazioa). Bigarren jarduera honetan, tailer erako hezkuntza-esperientzia proposatzen dizuegu. Bertan, “**learning by doing**” (eginez ikasten) **metodologia aplikatuko dugu**, beraz, egon prest, hasieratik gogor ekin beharko diozulako.

Workshopa “dastatze” baten moduan diseinatu dugu, non hauen **sintesia eta destilazioa** eskainiko ditugun:

- **Lidergo Parte-Hartzailea** (*Art of Hosting* edo *Art of Participatory Leadership*, ingelesez)
- **Agile**

Zenbait teoria, eredu, teknika eta metodologia eta haien aplikazioa partekatuko ditugu, bi ikuspegien arteko alkimia nola lor dezakegun jakiteko. Azken batean, **praktika eta lan-tresna ezberdinen esentzia dastatu ahalko duzu**, haien erabilera eta zure antolakuntzan nola txertatu, eta, praktikaren bidez, horiek guztiak zure egungo erronkei aplikatzen ikasi.

14.00 Jardunaldiaren amaiera.

PROPOSAMENA NORI ZUZENDUTA DAGOEN

Proposamen honetan, hirugarren sektore sozialeko erakundeetan eta erakunde horiei lotuta zaudeten eta era horretako kudeaketa-lanak edo laguntza-jarduerak burutzen dituzuen pertsonengan jarri dugu arreta. Ekonomia sozialean oinarritutako proiektuak abiatzen ari zareten erakunde eta pertsonentzako eta, oro har, antolakuntza mailako eraldaketa iraunkorragoetan interesa duen edozein pertsonarentzako elkargunea izatea ere nahi genuke. Halako antolakuntza-ereduetako pertsonak lehentasuna izango duzue, baina ez dizkiogu ateak itxiko interesaturik egon daitekeen bestelako publikoari (herri-erakundeak, hezkuntza-erakundeak, aholkularitza, *coaching*...).

EMAN IZENA

Esteka honen bidez: <https://forms.gle/Wc7F5kgZgFZLSb3z7> , Bidali email bat promocion@3sbizkaia.org helbidera edo deitu 94 400 33 55 zenbakira